

GURE HERRIA EUSKARATIK EGITEN

Lau Haizetara euskaldunon elkartearen

10. urteurrena dela eta

Mikel Azkarate

Lau Haizetarako kidea

HAMAR URTEKO BIDEA

Datorren udazkenean hamar urte beteko ditu Lau Haizetarak. Elkarteko kide naizen aldetik, hamar urteko historia laburraz idatziko dut segidan, euskara elkartearen ibilbideari begirada emateko eta orain arte egindako bidea erakusteko asmoz.

Alde batetik, mendizaleari gertatzen zaion bezala, behin erakunde batek hamar urte egin eta gero beharrezkoa du une batez bidean gelditzea eta atzera begiratzea, hasieran hartutako bidea zuzena ote den egiaztatu eta, hala behar denean, zuzendu ahal izateko, aurrez erabakitako ton-

torrera behar diren baldintzatan iritsiko bada.



lazko Korrikan Xabier Olaskoagaren inguruan bildu zen hizkuntz komunitatea.

Bestetik, eta aurreko adibideko mendizalearen modura goi-goian dagoenean bere inguruan dauden edo atzean utzi dituen ibar, erreka, baso eta mendiez jabetu nahian, elkartearentzat on da bere burua gure herriko euskararen historia luzearen baitan kokatzea. Izan ere, ikuspegi erlatibizatu horrek elkarteari dagokion apaltasunezko tokia emango dio eta denon gogora ekarriko du aurretik aritu diren euskaltzale guztien merezimendua.

Izan ere, Lau Haizetara euskaldunon elkartearen sorrera ulertzeko, ezin-

bestekoa da kontuan hartzea Errenterian eta Euskal Herrian euskalgintzaren historiaren azken 25 urteetan aritu diren mugimendu sozial desberdinak: ikastolak, gau eskolak, Euskal Herrian Euskaraz, EKB, saio instituzionalak, herri antolakuntza eta mobilizazioak... Era berean, beste erreferentzia garrantzitsu bat da 1991. urtean *Egunkaria Sortzen* talde suspertzailearen sorrera gure herrian, Euskarazko Egunkariaren egitasmoaz informatu eta harentzat herri babesa lortzeko. Horiekin batera, euskararen aldeko dinamika bateratu eta ez-alderdikoian aritutako Arrasate Euskaldunon Dezagun (AED) bezalako elkarteak eredu izan ziren garai hartan.

Lau Haizetararen historia laburtua

1992. Behin Euskaldunon Egunkaria egitate bihurtu eta gero, hainbat euskaltzalek euskararen aldeko gunearekin jarraitzea erabaki dute, herrian euskalgintzan dauden hutsuneak bete nahian: gogoeta egin, kolore guztietako euskaldun jendea bildu eta euskara elkartearen eraketa

abian jarri da. Azaroan ehunetik gora euskaltzalek Lau Haizetara euskaldunon elkarteak sortu dute, euskaldunak bildu, bilguneak landu, hiztunen komunitatea baterabiltzeko asmoz. Kike Eizmendi elkarteko presidente izendatu du bazkideen batzarrak. Goiko Kalean jarri du behin-behineko egoitza elkarteak.



Bertsozaletasuna, herri kultura bizia.

1993. *Ostiral Kulturalak* ekimena abian jarri da urtarrilean. *Soziolinguistika ikastaroa* antolatu da euskalgintzako eragileen prestakuntza gisa. Lau Haizetara ofizialki eratuta geratu da. *Xenpelar* bertso eskola Lau Haizetararen egituran sartu da, Joxeluis Maritxalar eta Joxeluis Zabala bazkideen ekimenez. Txirrita bertsolariaren oroigarri, herri ekitaldia antolatu da. Xalbador Zapirain "Ataño"-ri *omenaldia* egin eta Lau Haizetarako euskaldunon elkarteko ohorezko bazkide izendatu da. *Zapirain Anaiak V.* bertso paper lehiaketa antolatu du Xenpelar eskolak, elkartearen barruan lehen aldiz, hamazazpi urtetik gorakoei zuzenduta. *Bertsolariya* urtekaria kaleratu du Xenpelar eskolak, Lau Haizetararen barruan lehen aldiz. *Lau Haizetara* hiruhilabetekariaren lehen zenbakia kaleratu da, Gema Lasarte eta Ane Lardi bazkideen koordinaziopean. Elkartearen sortzaile Iñaki Alberdi hil da.

1994. *Lau Haize Gazte* taldea sortu da Lau Haizetaran, gazteen artean euskarari eragiteko. *Xenpelar kultur astearen* antolaketa Lau Haizetararen esku geratu da, zazpi urtetan segidan AEK-k antolatu ondoren. *Ipar Euskal Herria txirrinduz* gazte ekimena antolatu da. *Erosi euskaraz* ekimena abian jarri da Aste Santuko oporraldian gaztetxoei zuzenduta.

1995. *Euskararen Erabilera Sustatzeko Hitzarmena* sinatu da herriko hamabost elkar-terekin. Lau Haizetara *hilabetekari* bihurtu da. *Oarso Telebistaren* aurreproiektua idatzi da, Gema Lasarte bazkidearen zuzendaritzapean. Xenpelar bertso eskolako kide Ibon Zabala hil da istripuz. *Gaztain Erre* festa eta *Karakola eta barea* jolasa lehen aldiz antolatu dira. Makazagari omenaldia egin zaio, Xenpelar bertso eskolaren ekimenez. Lau Haizetarak Migel Irastorza haur eskola zaharreko instalazioetan jarri du *egoitza berria*, Pontika auzoko goialdean, Errenteriako Udalak lagapen bidez eskainita. *Bertsozale Eguna* antolatu da. Xenpelar bertso eskola Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteko kideen artean sartu da.

1996. Hitano ikastaroa antolatu da. *Euskarra Elkarteen eta Herri Aldizkarien Topagunea* federazioaren sortzaile eta partaide da Lau Haizetara. *Ttakalok* herriguneko udal ludotekaren ardura hartu du. Ane Lardi elkarteko koordinatzaile lanean hasi da. Oarso Telebistaren proiektua aurkeztu da jendaurrean. *Euskal deitzen euskal grafia* kanpaina abian jarri da. Euskararen Udal Ordenantza onartu du Udaltzarrak, eta Lau Haizetarak aurkeztutako 19 iradokizunetatik 11 onetsi. Errenteriako Gazte

Asanbladarekin elkarlanean, *Ipar Euskal Herriari buruzko Astea* antolatu du Lau Haizetarak.

1997. Imanol Miner elkarteko koordinatzaile lanean hasi da, Ane Lardiren ordez. Barne antolaketa egin da elkartearen, eta plan-gintzaren metodologia sartu du ohiko lan jardunean. Xenpelar bertso eskolak 10. urteurrena ospatu du. Xenpelar X. Kultur Astea antolatu da. Lau Haizetara elkarteak bost urte egin ditu. Mikel Azkarate elkarteko presidente izendatu dute. Bailarako Pedagogi Aholkutegia (PAT) eta Oarsoaldeko Euskara Batzordearekin batera, haur eta gazteen euskararen erabilpena areagotzeko programan parte hartzen du Lau Haizetarak.

1998. Ikastetxeetako euskara taldeak elkarlanean hasi dira, Lau Haizetaren eskutik. Madalen jaietan txosna jarri da, Egunkaria eta Oarso Fundazioarekin batera. Madalenetako Pegatina Lehiaketa eratu da. Udal Euskara Batzordea eratzeko proposamena aurkeztu du Lau Haizetarak Errenteriako Udalean. Herriko euskaltegiekin batera, *Matrikulazio Kanpaina* antolatu du Lau Haizetarak, Udalaren babespean. Euskararen aldeko entitateak *euskalgintzaren gunean* hasi dira elkarlanean, kolaborazio estuan aritzeko asmoz. Xenpelar XI. Kultur Astean Koldo Mitxelena Elissalten figura goretsi da, haren heriotzaren 10. urteurrenean, unibertsitate eta kultura munduko pertsonekin aste monografikoa antolatuta.

1999. Kultur Errotako ekitaldi zikloa eratu da. Publizitatearen arloan hizkuntz erabilerari jarraipena egin zaio. *Txantxangorri* I. bertso sari-keta eratu du Xenpelar bertso eskolak, bere baitan trebatutako bertsolarien maila neurtzeko aukera emanaz; era berean, *Ibon Zabala* I. bertso paper lehiaketa eratu du, Oarsoaldeko gaztetxoei zuzendua. Kilometroak ikastolen jaia antolatu da herrian, eta *Euskal Kultur Sortzaileen Gunea* jarri du Lau Haizetarak zirkuituaren barruan, Iruñeko Karrikiri euskara elkartearen laguntzaz. Oarsoaldeko Euskara Batzordearekin batera, *Begirale Ikastaroa* antolatu du elkarteak.

2000. Salvador Zapirain "Ataño" idazlea eta ohorezko bazkidea hil da. *Biziberritze saioa* antolatu da Lau Haizetaran, eta horrela elkarteko partaideen hausnarketarako barne mintegia eratu da. *Haize Berri* barne buletinaren lehen zenbakia argitaratu da, bazkideei

eta kolaboratzaileei aldizka elkartearen berri emateko asmoz. Haur eta gaztetxoaren eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko, *Eskolatik Kalera* programa abian jarri du Lau Haizetarak, Udalaren babesean, eta herriko hainbat elkarte eta ikastetxeren partizipazioaz; Olatz Mirandak programa koordinatuko du. Libe Ibañez Lau Haizetara aldizkariaren koordinazio lanean hasi da.

2001. AEK-k antolatutako Korrika dela eta, Xabier Olaskoaga euskaltzalea omendu du Lau Haizetarak, bai eta ohorezko bazkide izendatu ere. Eskualdeko beste herri aldizkari euskaldunekin eta Oarso Fundazioarekin batera, *Kolore* komunikazio taldea sortu da, hedabide horien publizitate eta irudi lanak bateratzearen. Koldo Mitxelena plazan jarri du egoitza berria elkarteak, Pontika gaineko Migel Irastorza haur eskolan sei urte eman ondoren. Inigo Susperregi koordinatzaile lanean hasi da, Imanol Minerren ordez. Euskaldun berriei laguntzeko *Mintzalaguna* programa martxan jarri du Lau Haizetarak, herriko euskaltegiekin batera eta Udalaren babesean; Larritz Etxepetelekuk programa koordinatuko du. *Lau Haizetaratu* bazkidetza kanpaina egin da.

2002. Xabier Zabaleta elkarteko presidente izendatu du bazkideen batzarrak. Lau Haizetarak Santsoenea kaleko *Kanttalen* etxera aldatu du egoitza, euskaldunontzako zerbitzua hobetuko duelakoan. Inaxito Albisu euskaltzaleari omenaldia egin zaio, euskalgintzan eta, beraz, gizartegintzan egindako bidea gorai-patuta. *Zirrikitu* haur eta gazteen taldea sortu da elkartearen barruan. *Euskal Herriak Ezagu-*



Kantua eta dantza, lagun nekazekin.

tuz saio berriaren barruan, Donibane Garaziko Irulegiko Irratiarekin harremana eratu da. Ber-
tso-kritikako ikastaroa antolatu du Xenpelar ber-
tso eskolak. *Eskolatik Kalera festa* antolatu du
Lau Haizetarak, Errenteriako Udalarekin eta
herriko hainbat elkarte eta ikastetxerekin bate-
ra. Bailarako beste herri-hedabide euskaldune-
kin batera, azterketa orokor bat egin da Oar-
soaldeko Multimedia Egitasmoa prestatzeko;
zehazki, eskualdeko astekari bateratu baten auke-
ra aztertu da.

ZERTAN DEN HIZKUNTZ KOMUNITATEA GAUR GURE HERRIAN

Egia da botila erdiraino dagoenean,
batzuek erdi beteta eta beste batzuek erdi hus-
tuta ikusten dutela. Bi joeretako edozeinen
arriskuaz oharturik, euskal hiztunen komunitate-
aren argi-ilunak laburbiltzen saiatuko naiz
ondorengo lerroetan, nora joan erabakitze-
ko non gauden jakin beharra baitago.

Indarrak

1. Gure herrian badira betidanik euskaldu-
nak direnak, euskara familiaren bidez transmiti-
tu dutenak. Bestetik, haur eta gazteen artean
gero eta gehiago dira euskaldun direnak, esko-
lari eta euskalduntzeari esker; zentzu horretan,
euskararentzat irabazten ari dira gure atzetik
datozen belaunaldiak. Gainera, euskara ohiko
bizitzan sartu da bikote euskaldun edota eus-
kaldun berri askoren familia giroan, eta horrek
geroko transmisioa ziurtatuko du. Gaur egun, ia
12.000 euskal hiztuneko masa kritikoa nahikoa
da euskaraz bizitzeko espazioak garatzeko.

2. Era berean, esan dezakegu urte askotako
esperientzia pilatu dela euskalgintzako entitateet-
tan. Izan ere, ez da alferrikakoa izan lehenda-
biziko ikastoletatik eta gau eskoletatik hasita
gaur arte egindako bidea. Gaur egun euskal-
gintzarako azpiegitura eratuta dago gure
herrian: ikastetxeak, euskaldunon elkarteak, heda-
bideak, euskalduntze erakundeak...; gainera,
euskalgintzako entitateek haien arteko koordina-
zio gunea osatua dute: euskalgintzaren gunea.

3. Bestetik, badira erdararen munduan mur-
gilduta bizi direnak, euskararik badenik ere ia
sumatzen ez dutenak... Batzuek eta besteek
badute, halere, komuna den puntu bat: denak
bertakoak dira. Gaur egun esan dezakegu, gure
Xenpelarren garaian ez bezala, gure herria ani-
tza dela, eta pentsaera, izaera eta bizimodu
desberdineko pertsoez osatutako herria dela.
Garai batean etorkin gisa hurbildu zitzaizkigun
haiek bertako egin zaizkigu. Bertako seme-ala-
bak hazi dituzte, ilobak ere bai kasu askotan.
Zentzu horretan, integrazio jarrerak atzeman
daitezke gure inguruan: erdaldun askorentzat il-
obak edota seme-alabak euskaraz aritzea gauza
arrunta eta pozgarria da; haien seme-alabei eus-
kal izenak jartzeko ohitura zabaldua dago...

Ahuleziak

1. Hizkuntz komunitatearen kontzientzia
ahula da oraindik, eta euskaldunon autokon-
fiantza-falta agerikoa da. Nahiz eta euskara
elkarteei buruzko herri esperientzia askotan
transbertsalizazio politikoa gainditu den, gure
herrian jarraitzen du oraindik, eta horrek jard-
teko autonomia mugatzen dio Lau Haizetararen
lanari. Bestetik, batzuetan kontzientziarik gabe



Eskolatik Kalera, gizarte sarea euskaratik egin nahian.

eta proiektu politikoen mesedetan lan egiten da euskararen alde; euskalgintzaren diskurtsoa diskurtso abertzalearekin bakarrik lotzeko arriskua dago oraindik. Erreterria euskaratik eraikitzeko lanari sinesgarritasuna kentzen dio horrek.

2. Gainera, herri ordezkarien artean, euskararen normalkuntzari dagokionez, adostasun zabal nahikorik ez egotea oztopoa da euskarak behar duen babeserako eta indar bilketarako. Euskara eta gaztelania ofizialak diren herri batean bizi garela ahazten da askotan. Hau da, gizartea euskararik gabe antolatu ahalko balitz bezala jokutzen da askotan bai administrazioan eta bai gizartean.

3. Euskara jakiteak ez du ziurtatzen herritarren artean euskararen erabilera normalizatua. Zenbaitetan entzun daiteke nola euskaraz eskolatutako haur eta gaztetxoek jotzen duten erdarrera, haiengan euskara eskolaren mundura mugatuta balego bezala. Zentzu horretan, hizkuntz erabilerari buruz ekainean emandako azken inkestaren datuek kezka eragin dute.

HIZKUNTZ KOMUNITATEA BIZIBERRITZEKO AHALEGINAK NON EGIN BEHAR DIREN

Lau ideia nagusiak Lau Haizetararen jardunerako

Nire ustez, gizarte anitz eta globalizatu batean euskara aurrera aterako bada, lau ideia eragiletan oinarritu behar da herria euskararen inguruan antolatzeke lana:

1. Euskara sendotu dadin ezinbesteko bidea da euskararen komunitatearen hizkuntz kontzientzia areagotzea eta euskal hiztunak baterabilitzea. Hau da, hiztunen komunitatea sendoa den neurrian, sendoa izango da euskara.

2. Euskara herritarren elkarbizitzarako tresna bat da; erreteriar guztion hizkuntza da, bai euskaldunena eta bai erdaldunena. Zentzu horretan, euskara ez dakiten herritarrengana zuzendu behar da, eta aukera eman behar zaie euskara eta euskararen mundua haiena ere baden zerbaiten modura bizi ditzaten, bai eta haien aberasten dituen eta haien kultur eta hizkuntz ondorerako oztopo ez den zerbaiten modura ere.

3. Erdarekin batera euskara jakiteak etorkizunerako aukerak zabaltzen ditu. Mendebaldeko gizartearen ezaugarri garrantzitsu bat hizkuntz aniztasuna da, eta aniztasun hori aberasgarria da pertsonarentzat, kulturen arteko harremanak ahalbideratu eta mundu berrie-

tarako atea irekitzen duelako. Hizkuntzen artean eta, beraz, hiztunen artean berdintasunean eratutako hizkuntz aniztasuna bultzatu behar da, orekan eta ez, ordea, mendetasunean oinarritutako aniztasuna izango bada.

4. Azkenik, nahitaez globalizazioa eta lokalizazioa uztartu beharra dago. Izan ere, azken urteetan informazio eta komunikazioaren teknologien bitartez globalizazioa sendotzen ari den joera geldieztina da, eta euskaltasunak dakartzan nortasun eta kultur elementuak hor txertatu beharra dago. Mundu globalizatuan euskaraz txertatu nahi dugu geure burua, eta euskararen bidez munduari gure ekarpena egin.

Idea horiek gauzatzeko bideak

1992. urtean ehunetik gora euskaltzalek Lau Haizetara sortu zutenetik, elkarren osagarri diren bi bide egin ditu elkarteak, beti ere argi edukita euskara elkartearen berariazko eginkizuna euskaldunak baterabilitzea izan dela.

Alde batetik, 1992. urtean, euskaldun izateko gogoia bilduko zuen elkarte gisa pentsatu, adostu eta eratu zen Lau Haizetara. Agian, momentua iritsi da bere baitan bestelako egitasmo aberasgarriak pentsatu eta adosteko, herri bizitzari, euskaratik arnas gehiago emateko. Bilbo edota Lasarte-Oriako *kafe-antzokiak* erreferentzia garrantzitsuak izan daitezke.

Beste aldetik, hizkuntz normalkuntzaren aldeko eginkizunaren barruan, euskararen funtzioak berreskuratzen jarraitu behar da, hainbat esparruetan (aisialdia, kultura, administrazioa, hezkuntza, kirola, hedabideak, lagunartea, merkataritza...). Udal Administrazioaren, gizarte eragileen eta euskalgintzako entitateen ahalgin bateratua ezinbestekoa da, gizarte esparru guztietan euskara normalizatuko bada.

Halere, gurea bezalako herri erdaldundu batean euskara guztiona izango bada, garrantzitsua den hirugarren bide bat egin behar da: herri bizitzan integrazio-guneak atzeman eta hor euskara txertatu. Izan ere, beren identitate-rako herritarrek garrantzitsu deritzeten integrazio-guneak kontuan hartu behar dira, erdaldun izan arren euskara bere egiten laguntzeko: Madalen festak, Musikaste, Sagardo Eguna, Erromeria Eguna, Santo Tomas festa, auzoetako festak, Gabonetako jaien inguruko ekitaldiak, eskolaren inguruko jarduerak, herriko plazak...